

Mahai-ingurua: "Erbestea"

Hegats, 4. zk., 1991-06: 135-141.

Exilio hau 20 urtekoa da, 36ean hasi eta 56 arte. Noski, exilioa esateko aurrena esan behar da gerra bat sortu zela. Sortu zen, eta hira olatu nagusietan atera zen herriatik kanpora. Lehenengoa Irundik izan zen. Irun irailaren 4ean uste dut erori zela eta bitarte horretan, bi edo hiru hilabete horietan zubitik hiru bat mila pertsona atera zen. Hori izan zen lehenengo olatua. Gero Donostia hartu eta Bilbo, hurrengo urtean, 1937an, ekainean, sartu zirenean frankistak 17an, gu (ni ere han nintzen eta) tartean atera ginen trenez, kamioiez, oinez, ahal genuen bezala Santanderrera. Hori izan zen berebizikoa. Denak ailegatu nahi nolabait ailegatu ginen hurrengo egunean Santanderko portura. Han zeuden ingeles barku batzu, han sartu eta egon ginen bi edo hiru egun. Bonbardeoak etortzen ziren, eta mehatxuak. Berrogei edo berrogeitamar mila izan ginen handik atera ginenak, horrelako zerbait. Gero jendeak jarraitu zuen eta Asturiasetik atera zen beste hainbeste eta (ahaztu egin zait esatea Bilbo erori aurretik 24 mila haur atera zirela ontziz Europako herrietara). Martxoaren haseran beste olatua. Euskaldunak eta beste gainontzeko guztiakin atera ziren Pirineoetatik Frantziara. Ez dakit fidagarria edo ez baina, Eusko Jaurlaritzak esaten du berak dituen numeroekin 150.000 pertsona sartu edo atera egin zirela mugatik bi edo hiru urte horietan osorik. 150.000 pertsona euskaldun. Horrek esan nahi du jende asko zela irten zena, zeren eta Gipuzkoak eta Bizkaiak garai hartan zituen 850.000 biztanle. Proporzioa berebizikoa da. Hori bukatu eta batzuk abiatu ziren Amerika aldera. Barkuetan Burdeostik eta beste batzuk Marsellatik. Zergatik horrela? Ikusten zelako alemanak bazetoztela. Eta egia, bukatu zen Espainiako gerra, 39an martxoan, eta urte horretan bertan, irailaren lehenengoan, Alemaniak inbaditzen du Polonia eta sortzen da mundu gerra. Bukatu ziren ontziak eta bukatu ziren denak. Orduan, hor gertatzen dena da Alemania egon zela Espainiako bukatu zai beste golpea emateko. Eta batzuk suertea izan zuten eta Amerikarantz atera ziren, baina beste batzuk geratu ziren han. Gauzak horrela, zer esango genuke dela exilioa literaturarentzat? Exilio asko daude. Bat, kanpora atera eta kanpoan pentsatuko gauza bat idatzi eta argitaratzen duena. Hori exilioko lana da, baina beste bat da, esate baterako, Orixerena. Orixek bukatua zuen bere "Euskaldunak" gerra aurretik. Bera ez zegoen seguru zer lan egiten ari zen eta sakabanatua zeukan lana. Eta hau gertatu zenean irten zen eta lanik gabe irten zen.